

HUHEZIK zabaldu egin ditu nazioarteko harremanak Galesen

2007/02/16

Urtarrilaren 24tik 27ra bitartean, **Aitor Zuberogoitia** eta **Joxemari Egaña** Galesen izan ziren. Aitor Ikus-entzunezko Komunikazioa karrerako zuzendaria da; Joxemari, berriz, nazioarteko harremanetako arduraduna.

Cardiff hirian mintegi batean parte hartu zuten, “**Linguistic Diversity and the Media**”, Mercator erakundeak antolatuta. Aberystwyth-eko Unibertsitatean, ostera, hainbat bilera egin zuten, bertako Irakasle Eskolako zuzendariarekin, Film eta TV departamendu buruarekin, Mercator Mediako zuzendariarekin eta Aberystwyth-eko Unibertsitateko Erasmus koordinatzailearekin.

Bilera horien ondorioz, HUHEZIK zabaldu egin ditu harremanak beste unibertsitate anglosaxoiekin. Era berean, **hainbat Erasmus egonaldi** lortu ditu ikasleentzat; gainera, ikertzaileen lanak nazioartean argitaratzeko etxeak aurkitu ditu, eta zenbait aukera topatu ditu irakasle trukeak egiteko hainbat unibertsitaterekin.

